



FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua ondo funtziona dezan, bi alderdi nagusi zaindu behar ditugu: antolaketa egokia eta taldeko harreman ona. Lehenik, antolamendu onak arazoak azkarrago eta eraginkorrago konpontzea ahalbidetuko digu. Antolamendu on bat izateko, denbora kudeatuko dugu eta denbora hori ondo aprobetxatuko dugu. Bigarrenik, gure artean harreman sendo eta egokia izanez gero, ez da arazorik sortuko eta lan-giroa askoz erosoagoa izango da. Gure artean harreman on bat sortzeko, elkarri lagunduko diogu eta lehiak ekidituko dugu.

Horrez gain, gure proiektua sare sozialen bidez (bereziki Instagramen) zabaltzea pentsatu dugu, informazioa jende gehiagorengana iristeko eta gure produktuek sortzen duten interesa handitzeko. Gure produktu nagusiak, hau da, diseinu pertsonalizatuak dituzten long oholak, publiko egokira irits daitezzen. Sare sozialen bidez, gure diseinu prozesua, produktu amaituak eta bezeroek jasotzen dituzten esperientziak erakutsi ahal izango ditugu, horrek konfiantza eta komunitatea sortzen lagunduz.

Azkenik, ekoizpen eraginkorra bermatzeko antolaketa egokia ezinbestekoa izango da. Horrez gain, webgunea eta online denda kudeatzea, mantentzea eta sustatzea ere jarduera estrategikoak dira, produktuak modu erakargarrian aurkezteko eta bezeroei erosketa-esperientzia egokia eskaintzeko. Hori guztia lortzeko, antolaketa sendoa eta baliabideen kudeaketa arduratsua izango dira arrakastaren giltzak.

Urko Abecia, Chloe Kiran Hussain, Gaizka Medina, Sofia Voloshyna.